

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **HAUR HEZKUNTZAKO PATIOEN INGURUKO IKERKETA**

**Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxeko patioen  
azterketa.**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

Egilea: Fernández Sánchez, Haidée.

Zuzendaria: Duque Ingunza, Ainara.

**2019**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**Laburpena:** Umeen lehen urteetan eskolako patioetan ematen dira jolas askeenak eta ondorioz esperientzia gehienak. Hori horrela, ezinbestekoa da Haur Hezkuntzako jolastokiek antolaketa egokia izatea, umeen beharrak asetzen dituzten bitartean inklusibitatea sustatzeko. Gaur egungo jolastoki gehien erdigunea kirol-kantxak izanda, kolokan geratzen dira ikasleek bertan izan beharreko aukera guztiak. Hortaz, gradu amaierako lan honen helburua, Gasteizen kokatuta dagoen Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxeko bi patioetan ematen diren jarrerak behatzea, eta horietatik aldaketak eta hobekuntzak proposatzea da. Horretarako, bi erregistro-taula eta behaketa sistematiko baten laguntzaz, ikerketa bat eramango da aurrera. Honen emaitzak lortuta, eta neskek eta mutilek guztiz bananduta jolasten dutela ikusita, kirolek eta hezkuntza-sistemek daukaten garrantziaren inguruan ondorioztatuko da.

**Hitz-gakoak:** Haur Hezkuntza, eskola patioak, genero rola, hezkuntza-sistema eta kirolaren zentraltasuna.

**Resumen:** Los primeros juegos libres de los niños y, por lo tanto, la mayoría de experiencias se dan en los patios escolares. Siendo esto así, es necesario que la organización de los patios de Educación Infantil sea adecuada, para que, de este modo, mientras se satisfacen las necesidades del niño se impulse la inclusividad. Hoy en día, el espacio central de los patios está ocupado por los campos deportivos y esto hace que las opciones de los niños queden más limitadas. Por lo tanto, la finalidad de este trabajo de fin de grado es observar las actitudes que tienen lugar en los patios del colegio Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro, el cual está ubicado en Vitoria, y a partir de estas, proponer ciertos cambios y mejoras. Para ello, se va a llevar a cabo una investigación con la utilización de dos tablas de registro y una observación sistemática. Al obtener los resultados de esta y observar que las niñas y los niños juegan totalmente separados, se sacarán conclusiones acerca de la importancia del deporte y del sistema educativo.

**Palabras clave:** Educación Infantil, patios escolares, roles de género, sistema educativo y centralización del deporte.

**Abstract:** The first free games and, therefore, the first experiences that children carry on take place in playgrounds. Letting that be, is absolutely essential that pre-school education playgrounds' organization be adequate; such that, while covering the kids' necessities, inclusivity is inspired. Nowadays, the central part in playgrounds is covered by sports pitches, leaving limited options for children. Hence, this Bachelor Final Tesis' aim is to observe the attitudes that take place in Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro school's playgrounds, which is located in Vitoria-Gasteiz; and, from that point, to propose several changes and improvements. To do so, a research is going to be carried away with the utilization of two register tables and a sistematic observation. Once the results are obtained and see boys and girls play in totally different places, some conclusions will be reached considering the importance of sport and the education system.

**Key words:** Pre-school education, playgrounds, gender-roles, education system and sport's centralization.

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>1</b>
<b>2. MARKO TEORIKOA .....</b>	<b>3</b>
<b>2.1. PATIOAREN DEFINIZIOA .....</b>	<b>3</b>
<b>2.2. PATIOEN EGOERA ETA ANTOLAKETA .....</b>	<b>3</b>
<b>2.3. FUNTZIOAK ETA BEHARRAK .....</b>	<b>5</b>
<b>2.4. JOLASAREN GARRANTZIA .....</b>	<b>7</b>
<b>2.5. GENERO ROLAK .....</b>	<b>8</b>
<b>2.6. PATIOA ALDATZEAREN ONURAK .....</b>	<b>9</b>
<b>3. HELBURUAK .....</b>	<b>13</b>
<b>4. METODOLOGIA .....</b>	<b>13</b>
<b>4.1. LAGINA .....</b>	<b>13</b>
<b>4.2. PROZEDIMENDUA .....</b>	<b>15</b>
<b>4.3. TRESNAK .....</b>	<b>15</b>
<b>5. EMAITZAK .....</b>	<b>17</b>
<b>5.1. PATIOEN DESKRIBAPENA .....</b>	<b>17</b>
5.1.1. Patio handia .....	17
5.1.2. Patio txikia .....	18
<b>5.2. EMAITZAK .....</b>	<b>18</b>
5.2.1. Patio handiaren emaitzak .....	18
5.2.2. Patio txikiaren emaitzak .....	20
<b>6. ONDORIOAK .....</b>	<b>22</b>
<b>7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK .....</b>	<b>24</b>
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>30</b>
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>33</b>
<b>1. ERANSKINA: Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxearen patioen argazkiak .....</b>	<b>33</b>
1.1. Patio handiaren argazkiak .....	33
1.2. Patio txikiaren argazkiak .....	34



## **2. ERANSKINA: Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxeko patioetan egin**

<b>daitezkeen hobekuntza proposamenen ideiak.....</b>	<b>35</b>
2.1. Eskola-baratza.....	35
2.2. Hegaztientzako askak .....	36
2.3. Aldapak eta bideak.....	37
2.4. Patio estaliak .....	38
2.6. Zoluan margotzeko jolasak .....	39
2.7. Material desberdinekin egindako txokoak .....	41

## 1. SARRERA

Sarrerari hasiera emateko asmoz eta eskola patioak jolasarekin harremantzeko, garrantzitsua da aipatzea, umeen lehen urteetan jolastokietan ematen direla jolas askeenak. Honekin azaldu nahi dudana da geletan aurrera eramaten diren jarduerak beste helburu zehatzago bat izan ahal dutela, hezkuntzara bideratuagoa, patioan askatasun gehiago daukaten bitartean. Honekin jarraituz, nabarmendu beharra dago baita ere, espazio ireki hauetan harreman informaloak aurrera eramaten direla; bai irakasleen artekoak, bai ikasleen artekoak, baita irakasle eta ikasleen artekoak ere (Pons, 2016).

Gainera, eskola patioetan bizitzen diren momentuak betiko dira; onak zein txarrak; beraz, irakasleen eta ikasleen ardura da espazio hauetatik esperientzia paregabeak lortzea. Bertan jasotzen duten errespetua, zaintza, laguntasuna, esperientziak eta bizipenak betiko izan behar dira; hortaz, helburu nagusia askatasuna eskaintzen dien espazio horretaz oroitzea izango litzateke. Horregatik, ezinbestekoa da patioen antolaketari berezko garrantzia ematea, horren egitura umeen jarreretan, harremanetan eta hazkuntza zein hezkuntza prozesuan eragina izango duelako (Pons, 2016).

Gaiaren gaurkotasuna dela eta, ezinbestekoa da Balentziako hezkuntza aholkulariaren izena aipatzea; Vicent Marzà (2019). Irakasle honek aipatzen duen bezala, eskola patioak aldatzearen beharra nabaria da, suposatzen dituen eragin guztiengatik. Beraz, jolastokietan metodo pedagogikoak uztartzea proposatzen du, esate baterako, eskola baratzak eta sexu bereizketak ekiditzen dituzten jolasak integratuz. Jolastoki inklusiboak eta berritzaileak proposatzen ditu; horretarako, 95 eskoletan jartzen du prozesu hau martxan. Aldi berean, aholkularitza xedeak patioak berdintasunean, hezkidetzan eta bizikidetzan eraikitzea eskatzen du, modu honetan, momentura arte egon diren liskar, sexu bereizketa eta muga guztiak ekidituz.

Hori horrela, autore asko dira patioaren eraldaketa behar bat moduan ikusten dutenak; esate baterako, Carme Cols eta Pitu Fernández (2019). Bi autore hauek jolastoki berri baten beharra aldarrikatzen dute, patioa komunikazioarako giltzarria dela defendatuz. Gainera, momentura arte ezagutu diren patioen egitura birpentsatzeko ideien aldekoak dira, modu honetan berdintasunean oinarritutako espazioa lortzeko

mundu naturarekin harremanetan egoteko aukera eskaintzen den bitartean (Cols eta Fernández, 2019).

Gaurkotasun ikaragarria duen prozesu hau aurrera eramateko ezinbestekoa da bi kontu lortzea; alde batetik, diru laguntzak eta bestetik, berriz, parte hartzaile guztien kooperazioa. Argi dago aldaketa baten beharra dagoela baina lankide guztien laguntza eta adostasuna ez izatekotan ezinezkoa izango litzateke eraldaketa bat lortzea. Gainera, gaiaren inguruan egin diren ikerketa guztien ondorioz; soziologian, antropologian, psikologian eta arkitekturan oinarrituta, parte-hartzaile guztien laguntzarekin erraztasunak egon daitezke eskola patioak eraldatzeko.

Jarraitzeko eta Haur Hezkuntzako graduan zehar ikasi eta ikusitako metodologiak martxan jartzeko asmoz, eskola bateko patioen analisi orokor eta aldi berean, espezifikoa bat egitea da lan honen helburu nagusia. Modu honetan, eskoletako patioek daukaten antolaketa eta bertan aurrera eramaten diren jarrerak ikusteko aukera egongo da. Beraz, analisi sakon baten ondorioz, hauen gabeziak eraldatzeko eta indarguneak mantentzeko proposamena agertuko da dokumentu honetan.

Sarrerari amaiera emateko eta lanaren egiturari sakonduz, esan beharra dago, lana hurrengo ataletan banatuta egongo dela; lehenik eta behin, marko teorikoa agertuko da non patioaren definizioa eta egoera aipatzeaz gain beste hainbat ataletan sakonduko den, esate baterako; honen antolaketa, bertan betetzen dituen funtzioak, jolasak daukan garrantzia, jolastokiak dauzkan gabeziak, eraldaketa egitearen onurak eta genero rolen agerpena zein eragina. Jarraitzeko, aurrera eramango den ikerketaren helburu orokorra eta azpi-helburuak azalduko dira. Geroago, Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxean aurrera eramandako ikerketaren azalpena eta ondoren, metodologiari garrantzia emanez, ikerketa honetan parte hartu duten ikasleen informazioa eta honekin batera ikerketan erabilitako tresnak aurkeztuko dira.

Metodologia alde batera utzita, emaitzetan oinarrituko naiz; atal honetan behatu ditudan bi patioen azalpena eta analisisa agertuko da, bakoitzak dituen ezaugarriak eta neurriak erakutsiz. Aurretik egindako guztia ondorioztatzeko asmoz, lortu diren datu guztiak interpretatuko dira eta behin datuak interpretatuta, hauen inguruan ditudan iritzi eta uste guztiak aurkeztuko dira. Bukatzeko eta lanari amaiera emateko, Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxeko patioetan egin daitezkeen hobekuntza proposamenak agertuko dira.



## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. PATIOAREN DEFINIZIOA

Patioen gaien sakontzeko asmoz, honen inguruko definizio batzuk aurkeztuko dira lehenik eta behin. Hasteko, esatea, umeak, eskola garaian espazio ireki batean jolasteko eta aritzeko aukera dela jolastokia, geletatik ihes egiteko eta lasai egoteko tartea (Jarrett, 2003). Ikasleen atsedenaldira garai moduan aurkeztu daiteke baita ere, eraikin batetik ateratzeko eta askatasunez zein ekintza garatu nahi den eta norekin erabakitzeke (Schulmaister, 2007).

Jolastokiak umeen jarrerak behatzeko leku aproposenak dira, askatasunez jarduten dutelako eta haien lehentasunak ikusteko aukera eskaintzen dutelako. Bertan, arazoak eta ikaskuntzak eman ohi dira, ikasleen autonomia sustatzen den bitartean egunerokotasunean bizi izan ahal dituzten liskarrak sortzen direlako. Horregatik, patio inklusiboak beharrezkoak dira, umei erraztasunak emateko arazo baten aurrean, hezkidetzak hobetzen den bitartean (Carneros, 2016).

Gainera, patioa ikasten jarraitzeko aukera paregabea da, erabilera bikoitza daukana; alde batetik, gelara kanpo esperientziak eramatea eta bestetik, gelan eratzten diren jolasak birmoldatzea, patioan aurrera eramateko eta modu honetan etekinak ateratzeko (Ledesma, 2012).

### 2.2. PATIOEN EGOERA ETA ANTOLAKETA

Eremu hau ez da inoiz neutroa izango, bertan dagoen antolaketa eta itxuratzen duten elementuek umeengan mezu bat helarazten dutelako, batzuetan zentzuduna eta besteetan kontraesankorra. Beraz, hezitzailearen papera ez da inguruak eskaintzen dionarekin konformatzea, baizik eta inguruarekin konprometitzea, hori eraldatzea eta egokitzea, modu honetan umeen garapenerako espazio bat sortuz (Morales, 1982).

Marínek (2012) defendatzen duen bezala, azken urteetan hezkuntzaren inguruan egindako aldaketa guztiak nabariak izan dira hauekin eman diren aurrerapausoengatik. Eskolako patioek, berriz, berdin jarraitzen dute. Hori horrela, umeen beharretara moldatzen ez diren patioak aurkitzen dira gaur egungo gizartean. Honekin lotuta, Freirek (2011) eskolako jolastokiaren egoera hondagarriaz berba egiten du, hauen material nagusia zementua dela defendatuz.

Hau horrela, patioetan dauden espazio grisak aldatzearen aldeko ideia proposatzen du Clementek (2017), esanez, umeez espazio naturaletan mugitzeko beharra daukatela eta gaur egungo patio grisek eta zementatuek ez dutela aukerarik uzten. Horretarako, patioaren lurzoruaren aldaketa proposatzen du, espazio naturalagoak eratzeaz gain, aukera gehiago eskaintzeko ikasleei jolastoki ordu hauetan. Hau horrela, hainbat material naturalen agerpena proposatzen du; esate baterako, hondartzako area, material birziklatuak, hostoak, zuhaitzetako enbor eroriak, etab. (Clemente, 2017).

Autore asko dira patioaren egoera eta antolaketa ezegonkorren inguruan ideiak aurkezten dituztenak, baina Marínek (2012), honen zergatiaren inguruan daukan ideia azaltzen du, esanez, arazoaren errudun nagusia jolasari ematen zaion garrantzia eskasa dela.

Azken finean, momentura arte, patioa ez da eskolako espazio garrantzitsuenetako bat bezala aurkeztu, baina umeezko eskaintzen dituen onurak direla eta, izan daiteke. Sozializatorako eta jolas libererako espazio bikaina izanda, egokia izango litzateke goraiatzea bertan sustatzen den askatasuna eta esperimentazioa (Sabadell, 2012). Horregatik, askotan garrantzia ematen ez zaion arren, ezinbestekoa da patioari eta horren antolaketari berezko denbora eskaintzea, umeen egunerokotasunean pentsatzen den baino eragin handiagoa daukalako (Pavía, 2005).

Ritscherren (2006) esanetan, patioaren antolaketa bikaina izateko bi atal nagusi aurkeztu behar dira bertan; alde batetik, bizidunak, eta bestetik, bizigabeak. Horretarako, proposatzen duena da bi hauen elkarketa edo antolaketa, adibidez, bizidun batean presentzia (zuhaitza), material bizigabe (paperontzia) baten alboan kokatzea, bien arteko uztarketa lortzeko asmoz. Modu honetan, bi baliabide hauek erabilia jolastoki baten antolaketa aproposa lor daiteke (Ritscher, 2006). Gaiarekin lotuta, Colsek (2007) espazio desberdinekin lortutako antolaketa proposatzen du, non umeez aukera desberdinak izango dituzten leku batean edo bestean egoteko.

Patioen egoera eta antolaketa dela eta, ezinbestekoa da kirolek eragiten duten zentraltasuna aipatzea. Horretarako, Torralbok (2017) zentraltasun horrekin bukatzeko beharra aurkezten du, patioaren antolaketak harremanetan eragina duela defendatuz. Hori horrela, kirol-kantxek eragiten dituzten nagusitasunekin bukatzeko ideia proposatzen du, hala ez izatekotan, beste aukera batzuentzako lekua desagertuko delako.

Gainera, zentraslitasun honen atzetik, ikasleek irudikatzen duten ideia bat dago, gehienetan diruarekin, ospearekin eta nagusitasunarekin harremana daukana. Finean, zentraltasun horrek umeengan ondorio negatiboak dituela defendatzen du, patioek pentsatzeko, gozatzeko, partekatzeko eta berdintasunean hezteko aukera eman behar dutela aurkezten duen bitartean (Torralbo, 2017).

### 2.3. FUNTZIOAK ETA BEHARRAK

Patioa heziketa espazioa den moduan, umeen beharrak asetu behar ditu; hortaz, eraldatzeko beharra dago. Ez da denbora pasatzeko espazioa soilik, bertan, mundu naturalarekin kontaktuan egoteaz gain, mota guztietako jolasak ematen dira: zuzenduak eta ez zuzenduak. Ezinbestekoa da umeen beharrak asetzen dituen espazioa lortzea, patioak dakartzan alderdi positibo guztiak indartzeko; esate baterako, psikomotrizitatea, sozializazioa, esperimenezioa, eta abar (Delgado, 2016).

Espazio honek, Haur Hezkuntzan batez ere, berezko garrantzia dauka, umeek haien sozializazioaren lehenengo urteak bertan igaroko dituztelako. Modu honetan, materialak erabiltzen eta zaintzen ikasiko dute, eskolan mantendu behar diren arauak ikasten eta barneratzen dituzten bitartean. Haien mundu berria da eskola, eta ondorioz, patioa baita ere, haien autonomiaren lehenengo pausoak patioan emango dira, espazioen banaketak eta talde lanak ikasten eta esperimeneztatzen dituzten heinean (Delgado, 2016).

Aurretik aipatu den bezala, patioak umeen beharrak asetu behar ditu, batez ere, Haur Hezkuntzako ikasleek, orokorrean, naturarekin eta espazio irekiekin duten harreman bakarra patioan ematen delako. Ikasleek behar desberdinak dituzten moduan, zentroetako patioetan behar desberdinak asetzeko espazioak egon beharko lirateke. Ikasle guztiak desberdinak izanda eta behar anitzak aurkeztuta, momentu eta egunaren arabera haien premiak aldatuko dira. Hortaz, egokia izango litzateke, patio guztietan hiru motatako espazioak aurkeztea; hasteko, mugitzeko eta lasai egoteko espazioak; jarraitzeko, bakarrik egoteko eta sozializatzeko espazioak; eta azkenik, segurtasuna eta arriskuak esperimeneztatzeko espazioak (Morales, 2018).

Hasteko, mugitzeko eta lasai egoteko espazioak, haiek bi gauzak behar dituztelako; beraz, egunaren edo gogo-aldartearen arabera bata edo bestea

aukeratuko dute. Eskola barruan zein kanpoan bilatuko dituzte une hauek, hortaz, ezinbestekoa da kanpo espazioetan aukerak aurkeztea (Morales, 2018).

Jarraitzeko, esan beharra dago, sozializatzeko eta bakarrik egoteko espazioak beharrezkoak direla baita ere, harremantzen diren moduan, bakarrik egoteko beharra sentitzen dutelako. Horregatik ezinbestekoa da patioetan honelako txokoak eratzea, zaila izan daitekeen arren espazio zabal bat izanda (Morales, 2018).

Honetarako leku baztertuenetaz edo zentrutik urrunago dauden txokoetatik baliatzea aukera bikaina izan daiteke. Gerta daiteke baita ere, ume bat bakarrik egotea eta hori nahi ez izatea, kasu horietarako konponbide aproposa bakartasunaren bankua izango litzateke, banku bat non ikasleak jartzen diren eta besteak hurbiltzeko aukera daukaten (Morales, 2018).

Ikasleen beharrekin bukatzeko, egokia izango litzateke aipatzea, segurtasuna eta arriskua sentitzeko beharra daukatela. Edozein patiotan segurtasuna ezinbestekoa da eta umeei hori da eskaini behar zaiena, batzuetan istripuak gerta daitezkeen arren, noski (Morales, 2018).

Hau horrela izanda, ikasleak, behar hori izatekotan, arriskuak bilatuko dituzte eta ahal duten neurrian edo moduan arriskatuko dira haien barne beharra hori delako, hortaz, kasu horietan, irakasleen behaketa ezinbestekoa da (Morales, 2018).

Espazio hauetan aurkezten diren funtzioak nabarmentzeko, patioak hurrengo funtzioak aurkeztu beharko lituzkete; alde batetik, klasea kanpo espaziora eramateko aukera eta bestetik, berriz, patioan ematen diren ekintzak, jolasak eta harremanak indartzea. Hori horrela, naturaren hurbilketa eta jolasen antolaketa berritzea ezinbestekoa da, modu honetan, umeentzat imaginazioz eta esperimentazioz betetako espazioa bihurtuz (Pons, 2016).

Funtzio hauek betetzekotan patioaren ondorio positiboek umeengan eragina izango lukete, haien arteko interakzioak hobetuz, curiositatea sustatuz eta autoestimua handituz. Gainera, hauek indartzeko edo hobetzeko hainbat materialez baliatzea ideia aproposa izan daiteke; esate baterako, urarekin eta arearekin jolasteko txokoak, altuera desberdinetako espazioak, etxe txokoak eta jolas sinbolikorako espazioak (Pons, 2016).

## 2.4. JOLASAREN GARRANTZIA

Jolasa izaki bizidunen lehenengo etaparekin gehiago harremantzen den arren, bizi osoan zehar eman daiteke Caurcelek (2010) azaltzen duen moduan. Hau interpretatzeko hiru teoria aurkezten dituzte Bonnemaision eta Triguerosen (2005):

- Garapenak jolasa baldintzatzen duenaren teoria: Jolasa momentu horretan finkatuta dauden gaitasunak adierazteko baliabide bezala azaltzen du.
- Jolasak garapena eta hezkuntza baldintzatzen duenaren teoria: Honen arabera jolasa da kontzeptu batzuen eskuraketa errazten duena.
- Adierazpen ekologikoaren teoria: Teoria honen oinarria ingurunean dago. Modu honetan, umearen jarrerak ingurunean egindako aldaketen ondorioz aldatzen direla defendatzen du.

Hiru teoria hauek alde batera utzita, Caurcelek (2010) bi taldekatze egiten ditu jolasaren ildo honetan; alde batetik, jolas librea eta bestetik, berriz, gidatua. Honen hitzetan, eskolako jolastokietan jolas librea izan beharko litzateke protagonista nagusia, askatasuna eta horrek dakarren mugimendua ezinbestekoak direlako umeen garapenean.

Jolasak daukan garrantziarekin jarraitzeko, esatea, garrantzia bikoizten dela espazio ireki batean ematen denean. Autore askoren arabera, umeen egunerokotasunean aire zabalean jolastea oso onuragarria izan daiteke (Laguía eta Vidal, 2009). Jolastokiak aukera ikaragarri eta baliabidez betetako espazioak bezala ikusteko beharra dago, modu honetan, etekinak ateratzeko.

Patioetan aurrera eramaten diren ekintzei lotuta, Francesco Tonuccik (2014) hogei printzipio edo arrazoi aurkezten ditu umeentzat jolastea mundua manipulatzeko edo aldatzeko modua izan daitekeela defendatuz.

Hauek irakurrita eta jolasaren beharra kanpo espazio egoki baten behararekin lotuz, gaur egungo patioen antolakuntzan aldaketa baten derrigortasuna nabaria da. Tonucciren hitzetan (2014), eta berriro ere, aurretik aipatutako behararekin lotuz, ezinbestekoa da nabarmentzea umeentzat jolasa gozamina dela eta honek sarritan ez du laguntzarik ezta bigilantzarik behar (Tonucci, 2014).

Patioetan ematen den jolasaren bidez, umeak kontatzeko zerbait izatea lor daiteke, eta horrek irakasleen eta umeen arteko harremana estutzea ekar dezake. Egia da

baita ere, umearen jolasa ezin dela ebaluatu; hortaz, argi dago jakin behar den bakarra umeek kontatu nahi dutena dela, modu horretan, erabakitzeko askatasuna ematen zaielako. Garrantzitsua da esatea, baita ere, bikaina dela helduek umeekin jolastea, bakarrik benetan haiekin jolasteko nahia baldin badute (Tonucci, 2014).

## 2.5. GENERO ROLAK

Eskola patioetan ematen diren jarrerai aipamena eginez, Bonalek (2014) azaltzen du espazio hauetan ematen diren ekintzak ez dituztela aurretik hezitzaileek prestatu, beraz, ordu hauetan ematen diren jarrerak eta baloreak ez dira kontuan hartzen eta informazio interesgarria eskaintzen dute. Hori horrela, Bonalek (2014) baieztatzen du gaur egun bereizten den egitura kulturalarengatik generoen arteko bereizketak egiten direla jolastokietan. Honen hitzetan, jolas bakoitzaren ezaugarriak neskak eta mutilak ekintza batera edo bestera bideratzen ditu, bi generoen arteko bereizketak areagotuz.

Honekin lotuta, Marínek (2010) kirol-kantxen gaia nabarmentzen du aipatuz legediak eskolak behartzen dituela futbol zelaiak eta horretara jolasteko ateak izatera patioetan. Gainera, baloiak uzten dituzte umeen eskura ekintza hauek aurrera eramateko jolastoki orduetan zehar. Hau horrela, egoera honen ondorio nagusia mutilek espazio zentralenak hartzea da, neskak bazterretan geratzen diren bitartean.

Beraz, ondoriozta daiteke, patioaren antolaketa zein egitura umeen jarrerak eta nahiak baldintzatzen dituela, neskak eta mutilak bananduz. Egoera hau Haur Hezkuntzako etapan ikusteko aukera dagoen arren, Lehen Hezkuntzako etapatik aurrera gehiago eman ohi da. Hau horrela izanda, arreta handia jarri behar da umeen lehenengo urteetan hauek aurkezten duten curriculum ezkutuak hurrengo urteetan eragin handia izan dezaketelako (Bonal, 2014).

Bonalek (2014) eta Marínek (2010) egindako ikerketetan ikus daiteke nola nesken eta mutilen harremanak indartzen diren baloiak eskolako patioetatik ateratzen diren heinean. Egoera hauek erakusten dute neskak ez daudela bazterretan nahi dutelako, baizik eta kirol-zelaiak eta mutilek uzten dizkieten espazio bakarrak direlako (Bonal, 2014).

## 2.6. PATIOA ALDATZEAREN ONURAK

Gaur egungo eskolako patioek behar dituzten ezaugarriak ikusita, honen eraldaketa bat ekar ditzakeen onurak aipatuko dira ondoren. Hauek arloka antolatuta dira:

- **Onura emozionalak:** Umeak espazio natural batean komunikatzen ikasten duten moduan, bertan, manipulazioak egiten hastan dira, ondorioz, gainontzeko ikaskideekin harremantzen dira. Egoera horrek, errespetua eta talde lana garatzea dakartza, modu honetan umeak eskuzabalagoak bihurtzen eta elkarlana sustatuz (Pons, 2016).

Gainera, umeen arteko harremanak hobetzeaz gain, umeak indibidualki garatzeko baliagarria da patioan ematen den mugimendua zein ariketa fisikoa. Hau horrela, umeen estres maila jaisten den bitartean haien autoestimua eta zorientasun maila igotzen da. Kirola egiten duten bitartean, endorfinak askatzen dituzte eta hormona hauek burmuinean eragina dute, ongizate sentazio atseginak sortuz (Roldán, 2016).

- **Onura kognitiboak:** Naturarekin kontaktuan egoteak ondorio positiboak ditu kognitiboki, horrela haien arreta eta behatzeko ahalmena hobetzen delako. Gainera, testura eta sentazio desberdinen agerpena ematen da, zeinak ikasleen zentzumenetan eta garapen intelektualean eragina duen (Pons, 2016).

Kirolaren eta heziketa fisikoaren agerpena, etapa honetan, berezko garrantzia dauka onura eta ondorio kognitiboak begira. Kontua da, umeak haien gorputza mugitzen duten bitartean, garuna eta honen funtzionamendua indartzen dutela. Froga batzuen ebidentzia ikusita, erakutsi izan da kirola egiten duen ume baten prozesu kognitiboak, kirola egiten ez duen ume batenak baina askoz hobeagoak direla (Ramírez, Vinaccia eta Suárez, 2004).

1999. urtean, Illinoiseko Unibertsitatean aurrera eramandako froga batek adierazi zuen, egunero 45 minutu ibiliz, hiru asteetan zehar, gaitasun mentalak asko hobetzen direla. Froga hau helduei eginda ere, garrantzitsua da heziketa fisikoaren agerpena bizitzako lehenengo urteetatik ematea, heldutasunean arazoak ez izateko eta ondorioz onenak lortzeko (Ramírez, Vinaccia eta Suárez, 2004).

- **Onura fisikoak:** Mugimendua eta aktibitate fisikoa oso onuragarria da umeen garapenean, psikomotrizitatea lantzeaz gain haien gorputza ezagutzen dutelako. Eskola gehienetan kirol lehiakorrek, gehien bat futbola, bultzatzen dira eta Haur Hezkuntzako etapan talde lana eta gozamina bultzatu behar dira (Pons, 2016).

Nabarmendu behar da baita ere patioetan umeek egiten duten ariketa fisikoa eta horrek dituen onurak. Psikomotrizitate gela izateaz gain, umeek, kirola egiteko eta haien gaitasunak garatzeko espazioa behar dute eta patioa gune aproposa da horretarako. Modu honetan, kirola egiten duten bitartean, haien herabetasuna gainditzen joaten dira, esate baterako, talde lanetan aritzen diren bitartean. Gainera, koordinazioa lantzeaz gain, muskulu- eta eskeleto-sistemaren garapena indartzeko lagungarria da.

Horregatik, irakasleen ardura da patioan horrelako jarduerak aurrera eramatea, kirolak dauzkan onura guztiak ikasleei eskaintzeko (Rodríguez, 2015).

- **Espazio zabal eta irekiekiko kontaktua:** Ikasleek espazio zabalekin kontaktuan egoteko beharra daukate, geletatik ateratzeko eta naturarekin harremanetan egoteko beharra. Azken finean, eraikinaren barruan modu batean edo bestean mugatuta daude, gehienetan, kontu desberdinak egiteko espazio jakin batzuk daude; hortaz, patioan, espazio zabal eta ireki bat izatea nahi duten ekintza nahi duten tokian aurrera eramateko oso onuragarria da. Gainera, autonomia eta askatasuna eskaintzen zaien bitartean, espazio erreal bat aurkezten zaie, eskolatik ateratzean aurkituko dutena baita ere (Vázquez, 2012).

Askotan espazio zabal eta irekietan ematen den jolas librea biolentziarekin erlazioa daiteke, baina egia da umeak diren bezala aurkezten direla espazio hauetan. Hortaz, ez da inolako beldurrik izan behar, haien arteko liskarrak eta gaizki-ulertuak konpontzeko espazio bikaina eta lagungarria delako. Patioa gelako ingurugirotik ihes egiteko modu bat bezala ikusi behar da, haien errutinaren atal garrantzitsu bat dena baita ere (Vázquez, 2012).

- **Esperimentazioa:** Haur Hezkuntzako etapan, umeek esperientziak modu indibidual batean barneratzen dituzte, modu honetan inguruko munduaren ideia propioa eraikiz. Egiten dituzten behaketetan eta hauetatik ateratako interpretazioetan, lehendik dauzkaten ideiak eragin handia izan dezakete. Oso



txikiak direnetik haiekin esperimentazioa jorratzea ezinbestekoa da, bai objektu desberdinekin, bai inguruko edozein materialekin (Altimir, 2016).

Haien egunerokotasunean zientzia eta esperimentazioaren mundura hurbiltzeko aukera ematen dizkieten material anitz izan ohi dituzte eskura. Material hauek umeen jarrera zientifikoa hobetzeko aukera eman dezakete, ekintza sinple batzuekin, esate baterako, eguzkia eta loreak behatzea, flotazioa ikustea, uraren zikloaz ohartzea eta horren inguruan galdetzea. Egoera hauek edozein momentutan eman daitezke eta onura ikaragarriak izan ditzakete umeengan (Altimir, 2016).

Haurren adimena aurretik bereganatutako kontzeptuetara hurbiltzen da eta ideia hauek eragina dute ezagutza eta esperientzia berrietan. Txikiak diren arren, kontu askoren inguruko ideiak dituzte eta hauek dira ezagutzetara bideratzen dituztenak. Egunerokotasunean gertatzen diren egoera guztiak motibazio iturri gisa lan egiten dute, modu honetan, haurren ikasteko gogoak eta jakin-mina handituz, horregatik patioa espazio bikaina da, jakin-mina handitzeko batez ere (Laguía eta Vidal, 2008).

Irakasleen ardura da ikasleei aukera desberdinak eta baliabideak eskaintzea, modu honetan esperimentaziora eta ezagutzetara hurbiltzeko asmoz. Ezinbestekoa da ondo antolatzea umeekin aurrera eraman nahi diren jarduerak, modu honetan, material eta prozedura egokiak hautatzeko landu nahi diren ezagutzak garatzeko asmoz. Gaur egun, aukera asko daude ekintza desberdinak aurrera eramateko, material manipulatioak erabiliz, besteak beste (Villa eta Cardo, 2015).

Garrantzitsua da irakasle guztiek argi izatea umeek aurretiko esperientzia eta bizipen desberdinak dituztela, beraz, gomendagarria izan daiteke hauek ezagutzea, umei haiekin bat datozen jarduerak eskaintzeko. Jarduerak umeen interesa eta curiositatea piztu behar dute, beraz, umeen adina kontuan izanda ezinbestekoa da haien interesetatik abiatzea (Cabello, 2011).

Ikaskuntza zientifikoa hasten da denok daukagun ikasteko eta mundua ezagutzeko curiositateagatik. Inguratzen gaituen guztiaren inguruan jakin nahi dugu, fenomeno guztiei erantzuna bilatzen diegu eta fenomeno guztiak ulertu nahi ditugu. Umeek plateatzen dizkiguten zalantzak zein azalpenak mundua ezagutzeko bide luze baten hasiera dira soilik. Umeek hurbil daukaten

guztiarekin esperimentatzen dute, arrazoi nagusia da modu honetan haien mundua ezagutzen eta eraikitzen dutela. Adin honetan, estimulu zehatz batzuk beharrezkoak dira kognitiboki garatzeko eta eskema espaziala egituratzeko (Cabello, 2011).

Umeek egitura kognitibo funtzionalen beharra dute, modu honetan, informazioa jasotzeko eta egunerokotasunean hobeto orientatzeko, ikaskuntzak barneratzeko, ikasteko eta haien espazioa ezagutzeko (Caballero, 2002).

Haurrak ikasteko, manipulatzeko, galdetzeko eta ikertzeko nahiarekin jaiotzen dira (Brown, 1991), hortaz, ezinbestekoa da eskolan esperimentazioarekin eta manipulazioarekin harreman estua duten egoerak eta materialak eskaintzea. Modu honetan, mota askotako sentsazioak esperimentatuko dituztelako, geroago, baliagarriak izango direnak haien garapenean.

Espazioarekiko harremana oso garrantzitsua da, bizitzako lehenengo momentutik hasten delako, inguru familiarrean adibidez, gurasoak esperimentatzeko eta ikasteko aukerak eskaintzen dizkietenean. Espazio hauetaz baliatu behar gara umeak oso harkorrak direlako, haien motorra kuriositatea da, beraz, gure eskuetan dago hau aktibatzea (Vega, 2006). 0-6 urte bitarteko etapa honetan, esperientziak barneratzen dituzte eta modu honetan haien ideiak eraikitzen hasten dira. Horregatik, ezinbestekoa da zientziaren garrantzia nabarmentzea, eguneroko errutinetan zientzia egon daitekeelako eta bertatik etekinak atera behar ditugulako (Cabello, 2011).

Umeen esperimentazioa orokorra eta aberasgarria izateko hainbat material mota proposatzen dituzte profesionalek. Hauen aburuz, onena, material mota desberdin ugari aurkeztea da, modu honetan, ikasleek, aukera gehiago izango dituztelako. Material hauek manipulatzeko errazak izan behar dira, eta modu egokian kontserbatzeko aukera eman behar dute, denbora gehiago irauteko asmoz, batez ere, patio txokoetan gorde nahi baldin badira (Villa eta Cardo, 2005).

Hau horrela, esperimentazioak patioan izan behar duen lekua aipatzeko, esatea, umeen lehenengo urteetan, eskola eta ondorioz, eskolako patioak, haien erreferentzia espazioak direla. Arrazoi horregatik, funtsezkoa da aurretik aipatutako ideia guztiak eskolako patioetan zein geletan ematea, umeen garapenean espazio hauek duten indarragatik (Cabello, 2011).

### 3. HELBURUAK

Eskola patioen ikerketa hau aurrera eraman baino lehen lortu nahi den helburu orokorra eta horretarako erabiliko diren azpi-helburuak aurkeztuko dira ondoren:

1. Patioaren antolamenduaren azterketa sakona egitea eta bertan ematen diren jarrerak behatzea, lortzen diren emaitzen arabera ahal diren espazioak eraldatzeko asmoz.

1.1. Jolas librean aritzeko espazioak nolakoak diren eta bertan gehien egoten diren ikasleak behatzea (generoa eta adina kontuan hartuz).

1.2. Zein motatako kirolak egiten dituzten bi patioetan eta bertan aritzen diren ikasleak zein adin eta generokoak diren behatzea.

1.3. Patioan bereizten diren bazterretan edo leku izkutuetan zein motatako jarduerak eramaten diren aurrera eta zein ikasleek hartzen dituzten espazio hauek behatzea.

1.4. Patioaren zentraltasuna non eta nola ematen den eta zein diren gune hauetan aritzen diren protagonista nagusiak behatzea.

1.5. Taldekatze txikietan bereizten diren ikasleak behatzea zein motatako jarduerak aurrera eramaten dituzten ikusteko.

1.6. Taldekatze handietan bereizten diren ikasleak behatzea zein motatako jarduerak aurrera eramaten dituzten ikusteko.

### 4. METODOLOGIA

#### 4.1. LAGINA

Ikerketa hau, Gasteizeko Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxean egin da, Haur Hezkuntzako maila guztietan, hain zuzen ere. Bertan, 151 ikasle bereizten dira; Lehen Hezkuntzan, berriz, 273. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilaritzaren menpeko herri ikastetxea da, beraz, erabat finantziatzen du Autonomia Elkartek, eta dohainiko


irakaskuntza du. El Pilar auzoan kokatuta dago eta ikaslego gehiengoa auzo honetakoa da. Gainera, familien maila sozio-ekonomikoa aipatzeko egokia izango litzateke nabarmentzea gehienak behe-erdiko mailan kokatzen direla. Gainera, ikastetxe hau euskalduna da, “D ereduan” oinarrituta dago, hau da, euskara da komunikazio eta hezkuntzarako tresna. Ikastetxeak identitate printzipio eta helburu zehatz batzuk ditu eskolako Hezkuntza Proiektuen aipatzen direnak, esate baterako:

1. **Laikotasuna:** Eskola laikoa agertzen da eta siniskera guztiak errespetatzen ditu. Horregatik erlijio gaia norberaren aukeran uzten du.
2. **Hizkuntza trataera:** Oinarrizko Hezkuntzan helburu nagusia bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna lortzea bilatzen da. Ikasle guztiak bi hizkuntzak jakitea eta euskara erabiltzeari eta ikasteari lehentasuna ematea lortu nahi dute.
3. **Metodologia:** Ikasleen iritzi kritikoa eta eztabaidarako zein erabakitzeke ahalmena garatu nahi dute.

Ikerketaren egunean, zehazki, 140 ume zeuden, 60 neska eta 80 mutil. Kopuru horietatik, gehienak azken ikasturtekoak dira, hau da, lau eta bost urteko ikasleak.

	2 URTE	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
<b>NESKAK</b>	13	15	20	12	60
<b>MUTILAK</b>	14	15	21	30	80

*1.taula. Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxean egindako ikerketan parte hartutako Haur Hezkuntzako ikasleak.*



*1.grafikoa. Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxean aurrera eramandako ikerketan Haur Hezkuntzako etapan dauden neskak eta mutilak.*

## 4.2. PROZEDIMENDUA

Ikerketa aurrera eramateko bi egun zehatzen hautaketa egin nuen, eguraldia kontua hartuz, patio batean edo bestean aritzeko. Hori aukeratuta eta irakasleen aldetik onarpena eta laguntza jasota, ikasle kopuruaren inguruan berba egin genuen. Irakasle gehienak aipatu zidaten mutil kopurua, neskenarekin alderatura, handiagoa edo berdina dela maila guztietan, desberdintasun nabariena bost urteko gelan emanda (1.taula). Hau horrela, patiorako bidea hartuta hau izan zen bi egun horietan aurrera eramandako prozedimendua.

Ikerketa hau egiteko ikastetxera hurbildu nintzen lehenengo egunean, patio handiaren behaketa egitea erabaki nuen. Egunak nahiko argitzen zuen, beraz, jolastokirako bidea hartu nuen, 10:30ak aldera, bost urteko ikasleen laguntzarekin. Behin patiora helduta, patio guztia behatzeko aukera nuen puntu jakin batean kokatu nintzen ikerketa aurrera eramateko asmoz.

Hori horrela, patio handiaren erregistro taularen itemak atalez atal markatzen joan nintzen alboan oharrak hartzen nituen bitartean. Goizeko jolastokiak egunaren 30 minutu hartzen ditu soilik eta hori izan zen behar izan nuen denbora bakarra datuak hartzeko.

Patio txikiaren behaketa egiteko prozedimendua berdina izan zen, hartara bertaratu nintzen eta patio txikiaren erregistro-taulaz baliatu nintzen egun horretan egin beharreko ikerketa aurrera eramateko. Jolastoki honetan, handian bezala, 30 minutu daude, eta minutu guzti hauek izan ziren ikerketak iraun zuen denbora tartea.

## 4.3. TRESNAK

Jolastokiaren ikerketa hau aurrera eramateko bi erregistro taulen laguntzaz baliatu naiz, bana patio bakoitzarako. Bi taula horiek eta egun horietan aurrera eramandako behaketa sistematikoa ikerketarako erabili ditudan baliabide bakarrak izan dira.

	Jolas librea (zabuak, jolas sinbolikoa..)		Kirola		Bazterrak (txoko izkutuak..)		Patioaren zentraltasuna (kirol-kantxak)		Talde txikietan (binaka edo hironaka)		Talde handietan (10 baino gehiago)	
	N	M	N	M	N	M	N	M	N	M	N	M
<b>2 urte</b>												
<b>3 urte</b>												
<b>4 urte</b>												
<b>5 urte</b>												

*2.taula. Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxean egindako ikerketan erabilitako patio handiaren erregistro taula.*

	Jolas librea (zabuak, jolas sinbolikoa..)		Kirola	Bazterrak (txoko izkutuak..)		Patioaren zentraltasuna (kirol-kantxak)	Talde txikietan (binaka edo hironaka)		Talde handietan (10 baino gehiago)	
	N	M		N	M		N	M	N	M
<b>2 urte</b>			Ez dago zelairik ezta pilota erabiltzek o aukerarik			Ez dago zelairik.				
<b>3 urte</b>										
<b>4 urte</b>										
<b>5 urte</b>										

*3.taula. Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxean egindako ikerketan erabilitako patio txikiaren erregistro taula.*

## 5. EMAITZAK

### 5.1. PATIOEN DESKRIBAPENA

Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxeak bi patio ditu; alde batetik, patio txikia, eta bestetik, berriz, patio handia. Azalpen honekin hasi baino lehen, esan beharra dago, bi patioak burdinezko ate batek banatzen dituela eta ikasle batzuek erraztasunez zabaltzeko aukera dutela, beraz, segurtasunaren aldetik nahiko ahula da. Hau horrela izanda, ondoren, biak deskribatuko dira, haien dimentsioak, antolaketa, segurtasuna eta instalazioak nabarmenduz.

#### 5.1.1. Patio handia

Patio handiak espazio eta instalazio desberdinak ditu eremu osoan zehar. Nahiko handia denez hainbat ataletan banatzen da; alde batetik, jolas librerako gunea, non zabuak kokatzen diren, eta bestetik, berriz, futbol eta saskibaloizelaiak. Lehenengo atal horretan banku batzuk daude eta orokorrean irakasleek erabiltzen dituzte ikasleek baino gehiago. Bertan, patio osoan dauden zabuak bereizten dira, hauek ez dute espazio gehiegi hartzen eta behealdean errefortsu txiki bat daukate. Huetatik hurbil, patio osoan zehar aurkitzen den espazio berde bakarra dago, belardi honek ez du espazio gehiegi hartzen baina umeei naturarekin egoteko aukera daukate. Gune honetan, baita ere, zuhaitz handi batzuk daude, patioan normaltasun osoz integratuta daudenak.

Patioaren beste erdiguneak futbol eta saskibaloizelaiak hartzen dituzte; hortaz, kirol-kantxek patioaren zentraltasuna hartuz bertako antolaketa arautzen dute. Honen inguruan geratzen diren bazterrak nahiko zabalak diren arren, hainbat zuhaitz daude naturarekin kontaktuan egoteko, baina, orokorrean hutsik daude futbolak eragiten dituen liskar eta istripuengatik. Jolastoki honetan, gainera, ez dago inolako estalkirik, horregatik, eguraldia txarrera joatean patio txikira bideratzen dituzte ikasleak.

Segurtasunari aipamena egiteko, esan beharra dago, aurretik aipatutako bazterrez eta leku izkutuez gain, patio honetan dauden eskailerak klasera zein kalera joateko aukera ematen dutela. Horregatik, irakasleek espazio hau oso kontrolatuta daukate, bazterrak eta leku izkutuak dituzten moduan. Gainera, jolastoki handi honetan material

anitzekin jolasteko aukera daukate (sokak, baloiak, klarionak, etab.), hortaz, patioa zementatua izanda, istripuak areagotu daitezke.

### **5.1.2. Patio txikia**

Patio txikiari aipamena egiteko, lehenik eta behin honen estalkia eta espazio murriztua aipatzea da egokiena. Honen ezaugarri nagusia eta aldi berean garrantzitsuena bere estalkia da, ez da oso handia eta ez du patio osoa hartzen baina aukera ematen du egun txarretan ikasleak kalean egoteko. Espazio honetan zabuak daude eta hauek patioaren erdigunea izanda, leku gutxi uzten dute inguruan jolasteko. Gainera, zabuak egoteaz gain, leku estaliaren inguru osoan zutabeak daude, zeinak istripu gehienek protagonista diren.

Seguratsunaren aldetik nahiko eskasa da beste patioa bezala, ikasleak burdinezko atea zabaltzeko, kalera eta klasera joateko eta komunitara sartzeko aukera daukatelako. Egia da, klaseko eta kaleko bidea ematen duen atea beti dagoela giltzapean baina hanka-sartze bat egotekotan umeez patiotik alde egiteko aukera daukate. Komunen kontua puntu positibo bat izan daiteke istripuak eratzeko momentuan ura eta papera hartzeko aukera dagoelako, baina, ez dagoenez oso kontrolatuta jolasteko espazio itxia izan ohi da. Gainera, horrez gain, ate hauetatik hurbil dauden leku izkutu batzuk bereizten dira, orokorrean irakasleen ikuspuntutik at daudenak haiek hartzen duten kokapena dela eta.

Patio handia bezala, espazio zementatua da, beraz, ikasleek ez dute espazio naturalekin egoteko inolako aukerarik patio txiki honetan. Hau horrela, haien aukerak murrizten dira, espazio naturalak ez izateaz gain, guztiz debekatuta dagoelako gelako zein eskolako edozein material bertaratzea.

## **5.2. EMAITZAK**

Behin patio handiaren eta txikiaren deskribapena eginda, aurretik aurkeztutako erregistro taulen emaitzak azalduko dira. Datuen azalpena aurrera eramateko, lehenik eta behin, patio handiaren emaitzak aurkeztuko dira eta ondoren, patio txikiarenak.

### **5.2.1. Patio handiaren emaitzak**

Item guztiak kontuan hartuta, Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxeko Haur Hezkuntzako ikasleak patio handian behatuz, hurrengo emaitzak lortu dira:



	Jolas librea (zabuak, jolas simbolikoa..)		Kirola		Bazterrak (txoko izkutuak..)		Patioaren zentraltasuna (kirol-kantxak)		Talde txikietan (binaka edo hiruak)		Talde handietan (10 baino gehiago)	
	N	M	N	M	N	M	N	M	N	M	N	M
<b>2 urte</b>	X	X			X				X	X		
<b>3 urte</b>	X	X	X		X			X	X			X
<b>4 urte</b>	X		X		X			X	X			X
<b>5 urte</b>	X		X		X			X	X			X

**4.taula.** Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxean egindako ikerketan lortutako patio handiaren emaitzak.

Lortutako emaitzak aurkezteko asmoz, adinka emango dira hauen azalpenak. Hasteko eta bi urteko ikasleek aurkezten dituzten jarrerak aipatzeko, esan beharra dago, nesken eta mutilen artean oso normala dela jolas libreak aritzea, kirolean aritzea hain normala ez den moduan. Kirolak praktikatzeko ez dituztenek ez dituzte espazio zentralenak hartzen, beraz, emaitzen arabera, bi urteko neskek bazterretan igaro ohi dituzte patio orduak. Mutilak berriz, ez dira bazterretan kokatzen ordu hauetan zehar, baina talde txikietan elkartzeko ohitura daukate, neskek duten moduan.

Hiru urteko ikasleen emaitzak aurkezteko, esatea, jolas libreak aritzen direla, bai neskek, bai mutilak. Kirolean berriz, mutilak soilik nabarmentzen dira, beraz, hauek dira espazio zentralenak hartzen dituztenak, neskek bazterrak hartzen dituzten bitartean. Adin honetako neskek talde txikietan elkartzen dira jolastoki orduetan zehar, mutilak, berriz, talde handietan biltzea nahiago dute emaitzen arabera.

Lau urteko ikasleekin jarraitzeko, aipatu beharra dago, mutilen artean jolas librea ez dela aukera nagusia, ez dutelako praktikatzeko. Horren ordez, nahiago dute kirolean aritzea eta hortaz, patioaren espazio zentralenak okupatzeko futboleko edo

saskibaloian aritzeko. Ondorioz, talde handietan biltzen dira, neskek txikietan biltzen diren bitartean.

Hau horrela, neskek jolas librean aritzen dira eta talde txikietan bilduta, patioan dauden bazterretan igarotzen dute denbora tarte hori.

Haur Hezkuntzako ikasle nagusienek, bost urtekoak, lau urtekoen antzera jolasten dute emaitzen arabera. Neskek jolas librea aukeratzen dute mutilek kirolean aritzea nahiago duten bitartean. Hau horrela izanda, neskek talde txikietan eta bazterretan igarotzen dituzte patio orduak; mutilek talde handietan bilduta espazio zentralenak hartzen dituzten bitartean.

Beraz, emaitzek aurkezten duten moduan, hiru urtetik gorako mutilek espazio zentralenak hartzen dituzte kirolean aritzeko, horregatik espazio zentralenak nagusitzen dira. Neskek, berriz, bi urtetik, bost urterako prozesuan antzeko jolasak eramaten dituzte aurrera haien denbora gehiena zabuetan, bazterretan eta talde txikietan igarotzen.

### 5.2.2. Patio txikiaren emaitzak

Item guztiak kontuan hartuta, Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxeko Haur Hezkuntzako ikasleak patio txikian behatuz, hurrengo emaitzak lortu dira:

	Jolas librea (zabuak, jolas sinbolikoa..)		Kirola	Bazterrak (txoko izkutuak..)		Patioaren zentraltasuna (kirol-kantxak)	Talde txikietan (binaka edo hirunaka)		Talde handietan (10 baino gehiago)	
	N	M		N	M		N	M	N	M
<b>2 urte</b>	X	X	Ez dago zelairik ezta pilota erabiltzeko aukerarik.	X		Ez dago zelairik.	X	X		
<b>3 urte</b>	X	X		X			X	X		
<b>4 urte</b>	X	X		X			X	X		X
<b>5 urte</b>	X	X		X			X	X		X

5.taula. Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxean egindako ikerketan lortutako patio txikiaren emaitzak.

Ikerketaren ondorioz, patio txikian lortutako emaitzak aurkezteko asmoz, ikasle txikienetik handienara egingo da azalpena. Hasteko eta bi urteko ikasleen emaitzak nabarmentzeko, esan beharra dago, bai neskek, bai mutilak, jolas librean talde txikietan aritzen direla. Horrez gain, neskek bazterretan eta leku izkutuetan jolasteko ohitura daukate, mutilak hauetara bertaratzen ez diren bitartean.

Hiru urteko ikasleekin jarraitzeko, aipatzea, bi urtekoen modura, jolas librean eta talde txikietan aritzen direla, bai neskek, bai mutilak; desberdintasun bakar batekin, mutilak ez direla bazterretan aritzen.

Lau urteko ikasleek jolas librean eta taldekatze txikiak hautatzen dituzten arren, taldekatze handiak egiten dituzte baita ere, baina hauek soilik mutilen artean ematen dira. Neskek, aurreko adinetan bezala, leku izkutuetan eta bazterretan jolasten jarraitzen dute. Beraz, adin honetan aldaketa bat behatzeko aukera dago, lau urteko mutilak talde handietan biltzen direlako.

Emaitzen azalpenarekin bukatzeko eta patioan dauden ikasle nagusienak aipatzeko, esan beharra dago, bost urteko ikasleek, gainontzekoak bezala, talde txikietan eta jolas librean aritzeko ohitura daukatela patio txikian. Emaitzek aurkezten duten moduan, mutilek talde handietan egotea aukeratzen dute, neskek bazterrak eta leku izkutuak aukeratzen dituzten bitartean.

Taulan ikus daitekeen moduan (**5.taula**), patio honetan ez dago inolako kirol-kantxarrik ezta baloiekin jolasteko aukerarik, beraz, ez da inolako zentraltasunik ematen. Neskek eta mutilek txoko eta taldekatze desberdinak aukeratzen dituzten arren, ez dago zentraltasunik eta hortaz, genero baten nagusitasunik espazio horietan.

Patio txikiaren emaitzen analisiarekin bukatzeko, garrantzitsua da nabarmentzea, honen dimentsioak askoz txikiagoak direla eta egoera horrek ikasleak asko mugatzen dituela askatasunez mugitzeko momentuan. Item gehienetan espazioaren desberdintasunak eragiten dituen jarrera aldaketak ikus daitezke; esate baterako, taldekatzeak, jolas askearen presentzia, etab.

## 6. ONDORIOAK

Aurretik aipatu den moduan, patioen dimentsioak eta bakoitzean izan ahal duten askatasuna guztiz desberdinak dira, hortaz, ez da harritzekoa emaitzak hain desberdinak izatea. Ikerketa hau eginda eta emaitzak interpretatuta; ondoren, patio handiaren zentraltasunaren inguruan, patio txikiaren antolakuntzak duen eraginaren inguruan eta biak alderatuz atera diren emaitza nagusien inguruan ondorioztatuko da.

Patio handiaren emaitzek aurkezten duten moduan, espazio zentraletan dauden kirol-kantxak espazio erabilienak dira, batez ere, Haur Hezkuntzako mutilen aldetik. Emaitza hauek erakusten dute ekintza askoren artean erabakitzeko aukera dutenean futbol- edo saskibaloizelaiak lehenengo aukera direla hiru urtetik gorako mutilen artean.

Rodríguez eta Garcíaren (2008) ikerketa baten arabera, patioak modu hierarkiko batean antolatuta daude, hortaz, irakasleek askatasun osoa eskaintzekotan mutil gehienek espazio handienak eta zentralenak okupatzeko ohitura daukate. Aukeraketa hau horrela izanda, neskena horren arabera antolatzen da, kirol zelaien inguruan dauden bazterretan kokatzen dira, zelaiek eragiten duten zentraltasuna dela eta.

Aurretik esan dudan moduan, mutilek aurkezten duten jarrerak nesken erabakietan eragina dauka, beste leku batera bideratzen dituelako; esate baterako, futbolera edo saskibaloira jolasten duten indarrarekin ikusita, guztiz normala da gainontzeko ikasleak beste espazio batzuetara lekualdatzea. Woodhill eta Sammuels (2004) ideia honen aldekoak dira, esanez, neskek kirolen inguruan pairatzen duten gutxiagotasuna eskoletako patioetan islatzen dela eta egoera horren arrazoi nagusia familien eta gizartearen hezkuntza sisteman egon daitekeela. Ideia hau indartzeko, esan beharra dago Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikasleen guraso gehienak etorkinak direla, beraz, gehiengoak gizarte patriarkal batean sinesten dute, non mutilek indarra eskatzen duten kirolean aritzen diren, neskak esfortsu gutxiko jarduerak egiten dituzten bitartean. Hau horrela, patioetan ematen diren jarrerek aurretik jasotako hezkuntza-sistema batean izan dezakete jatorria.

Beraz, kirolek eragiten duten zentraltasunarekin jarraitzeko, esatea, aurrera eramanez ikerketak erakutsitako emaitzak bat datozela 2018. urtean futbolaren

ohiartzunaren inguruan argitaratutako berri batekin. Bertan, futbolak eskolako patioetan duen eraginaren inguruan berba egiten da, honek dakarren zentraltasuna eta ondorio negatiboak azpimarratuz. Gainera, kirol honen zentraltasuna aipatzeaz gain, espazio honetan ikus daitekeen mutilen nagusitasuna aurkezten da baita ere (Fadrique, 2018).

Hau horrela, ikus daiteke Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxean aurrera eramaten diren jarrerak beste eskola batzuetan errepikatzen direla, gainontzeko patioetan kirol-kantxetan aritzen diren ikasleak antzeko jarrerak aurkezten dituztelako.

Patio handian kirolekiko duten dependentzia hau, patio txikiak aurkezten dituen ezaugarriak guztiz debekatzen du. Patio honetan ez dago inolako kirol-kantxarik ezta baloiekin jolasteko aukerarik, beraz, ikasleak, beste ekintza batzuetara aritzera behartuta ikusten dira. Beraz, honen antolamenduak eta bertan dauden arauak eta mugek mutilak beste jarduera batzuetara bideratzen dituzte, eta bertan ematen diren emaitzak ikustean nabaria da jolas librearen gorakada handia dagoela, batez ere mutilen aldetik.

Horren arrazoia patioaren zentraltasunean dago, patio txikiak eskaintzen dituen ezaugarriengatik ez dago aukera espazio zentralak erabiltzeko, hortaz, denak elkarrekin eta taldekatze txikiagoetan jolasteko aukerak asko handitzen dira. Hau horrela, neskak hain ohituta daude talde txikietan jolastera, patio honetan berdin jolasten dutela. Azken finean, haientzat ez da aldaketa handia patio batetik bestera igarotzea, beti espazio txikienetan, bazterretan, zabuetan eta talde txikietan aritzen direlako. Mutilen kasuan, berriz, aldaketa handia nabaritzen da, ikasle berdinak izanda, guztiz desberdin jolasten dutelako antolaketaren arabera.

Idea honen aldekoa da Vallejo (2014), aipatzen duenean, hezkidetza plana berritzea ezinbestekoa dela jolas berriak integrazteko eta neskei patioetan espazio berriak eskaintzeko. Beharrezkoa da eskolako patioen antolaketan aldaketa bat egitea, espazio zentralean bukatzeko eta modu honetan ikasle guztiak haien artean harremantzeko. Kirol-kantxek eragiten duten zentraltasuna horrela jarraitzekotan, neskak eta mutilak oso gutxi elkartuko dira ekintzak aurrera eramateko. Espazio hauen moldaketa bat eginez bazterketa sexistarekin bukatzeko aukera asko daude, umeen arteko harremanak indartzen, hobetzen eta areagotzen diren bitartean (Vallejo, 2014).

Beraz, bi patioetan ikerketa berdina aurrera eramanda eta emaitza hain desberdinak lortuta, ondoriozta daiteke horren arrazoia imitazioan egon daitekeela

baita ere. Honekin esan nahi dudana da, bi urteko ikasleak jolas librean aritzen direla eta kirol-kantxak ez dituztela ezta ukitzen ere. Baina hau, handitzen joaten diren heinean, asko aldatzen da, neskak jolas librean jolasten aritzen dira, baina hauek taldekatze txikiak egiten dituzten bitartean, mutilak kiroletara jolastera joaten dira, hortaz, patio handian dauden bitartean taldekatze handiak egiten dituzte.

Patio txikietara bideratzean, nagusiagoek taldekatze handiak jarraitzen egiten dituzte ohituta daudelako kiroletan aritzera eta patio honetan taldekatze berdinak mantentzen dituzte.

Honekin azaldu nahi dena da, umeak txikiak direnean imitazioz ikasten dutela, beraz, neskek neskek egiten dutena errepikatzen dute eta mutilek mutilek egiten dutena. Ikasle txikienean, lehenengo begiratzen dute besteek egiten dutena, gero behatzen dute nola egin daitekeen eta azkenik ekintza horiek imitatzen dituzte (Roldán, 2015). Beraz, ez da harrizkoa, nagusien pausuak jarraitzea, haientzat normalena delako.

Kontua da, patio txikian aukerak murrizten direla eta arrazoi horrek emaitzak aldatzen ditu, kirolaren presentzia eta zentraltasuna ekidituz. Aurretik esan dudan moduan, bertan baloiekin jolastea guztiz debekatuta dago. Beraz, neurri honekin ikus daiteke ikasleek ez dakitela baloien beharra eskatzen ez duten kirolarik aurrera eramaten. Egoera honek, eragin dezake taldekatzeak oparagoak izatea, azken finean, kiroletara aritzeko aukerak murriztean haien arteko jolasak areagotzen direlako.

Ondorioekin bukatzeko, esan beharra dago, antolamendua edozein motakoa izanda, neskak beti leku izkutueta eta bazterretan jolasten direla, txikienetatik handienetara. Beraz, antolakuntzak eragina duen arren, kontu batzuk ez dira aldatzen eta hau izan daiteke horren atzean dauden estereotipoak oso barneratuta dituztelako eta haien lekua bazter horietan topatzen dutelako.

## **7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Behin egoera ezagututa eta aztertuta, esan beharra dago, ikasleei baliabide gehiago eskaintzea kirolaren zentraltasunarekin bukatzeko aukera aproposa den arren, patio handian kirolen zentraltasuna nabaria izaten jarraituko dela. Horretarako eta kirol zentralenak, kasu honetan futbola eta saskibaloia, patioetan ez debekatzeko

asmoz, ikasle guztiek osatutako lehiaketak proposatu daitezke. Hau da, kiroltara aritu nahi diren ikasle guztiekin zerrenda bat egitea eta animatu nahi duten guztiekin beste bat egitea, modu honetan bi aukera emango dira kiroltan parte hartzeko. Zerrendak egiten dituztenean, zozketa egingo da partaide guztien artean eguna erabakitzeko eta modu honetan ikasle guztien arteko kooperazioa, antolaketa eta txapelketa osasuntsua lortuko da.

Modu honetan, kirolaren presentzia nabaria jarraitzen izango da Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxeko patio handian baina bi kirol zentral hauei eta kantxei beste ikuspuntu bat emango zaie. Horrela zirrara handitzen den moduan, ikasleen arteko lehia osasuntsua eta talde lana aurrera eramango dira. Gainera, bi aukera eskainiko direnez, ikasleek zeregin desberdinak izateko aukerak izango dituzte, kiroltara aritu nahi ez direnak edo gustuko ez dutenak baztertuta ez uzteko asmoz.

Oso ekintza interesgarria izan daiteke, bai irakasle, bai ikasleentzat, haien arteko harremanak indartzeko. Ekintza hau aste osoan zehar eraman daiteke aurrera, aste bakoitzean kirol bat eginez edo biak txandakatuz, beste motatako jolasei lekua utziz baita ere, esate baterako, ginkanak edo naturarekin harremana duten ekintzak; hala nola, patioan eraiki ahal den eskola-baratzean aritzea. Modu honetan, patioaren antolaketak eragiten duen zentraltasuna alde batera uzteko aukera egongo litzateke.

Hau guztia esanda, eta patioak dituen beharrak aztertuta, umeez duten mugimendu eta askatasun falta horri irtenbidea emateko, higidura gehiago eskatzen duten ekintzak proposatzea gustatuko litzaidake. Honekin esan nahi dudana da, patio handian, adibidez, espazioa oso zabala dela baina ikasleek gune bakoitza ekintza bakar baterako erabiltzen dutela, patioa aukera anitzeko espazioa ikusi gabe. Beraz, horri amaiera emateko, aproposa izango litzateke ekintza desberdinak aurrera eramatea patio osoan zehar.

Kontua da, egunero jarduera berdinak eramaten dituztela aurrera eta jolas edo ekintza gidatu zein prestatuekin umeen motibazioak gorakada bat izaten duen bitartean, espazio guztia erabiltzeko aukera egongo litzatekeela. Hau aurrera eramateko, ezinbestekoa da irakasle eta ikastetxearen partaide guztien adostasuna eta kooperazioa lortzea, talde lana bultzatzeko asmoz. Orokorrean ez dute kooperatzeko ohiturarik eta horrek harremanak indartzea zailtzen du. Beraz, espazio osoa erabiltzeko eta adin guztietako ikasleak elkarrekin jolasteko jarduerak prestatzea aukera on bat izango litzateke, astean birritan edo hirutan, adibidez.

Hori horrela, ikasleen arteko harremanak hobetzen eta indartzen diren bitartean, nesken eta mutilen arteko rol jolasak eta zentraltasunak alde batera utziko dira. Patio txikian ekintza hauek aurrera eramatea zailagoa izango litzatekeen arren, talde txikietan jarduera ugari egin daitezke baita ere, eguraldia ona ez den egunetan. Horretarako, irakasleen aurretiko antolaketa eta prestakuntza ezinbestekoa da, dauden ume guztien beharrak eta zailtasunak kontuan izanda.

Baliabide hau aukera bat izanda ere, egokiena izango litzateke patio handiaren espazio bat estaltzea, aurretik esan den moduan, patio honen dimentsioak oso handiak dira eta espazioa nahiko txarto aprobetxatzen dute ikasleek, beraz, jolastokiaren atal bat estaltzea onuragarria izango litzateke aipatu diren jarduera guztiak aurrera eramateko. Modu honetan, patio txikiak aurkezten dituen aukera eskasak handitzeko posibilitatea egongo litzateke.

Eskolako jolastokia espazio polifazetiko bat izanda, ezinbestekoa da eskaintzen dituen aukera guztiak aprobetxatzea. Hau horrela, honen moldagarritasunaz baliatzea proposamen bikaina izan daiteke, adibidez, jolastokiaren atal bat estaliz. Baliabide hau aurrera eramatekotan, patioak eskaintzen dituen aukera guztiak handituko dira, eguraldi aldaketak patioaren erabileran eragin gutxiago izango duen bitartean (Rangel eta Valdés, 2018). Gainera, espazio honen dimentsioaz baliatuta baloirik eskatzen ez duten kirolak erakusteko aukera egongo litzateke, modu honetan, patio txikian egoteko beharra daukatenean baliabide gehiago izateko asmoz; umeen artean galtzen ari diren herri kirolak (loko txak eta sokatira), besteak beste.

Aurretik naturaren garrantzia aipatu eta gero, ondoren, patioaren naturalizaziorako prozesuan egin ahal diren aldaketak proposatuko dira, bertan behatu den natura falta indartzeko asmoz. Horretarako, eskola-baratzaren integrazioa hezkuntza-baliabide bikaina izan daiteke. Hezkuntza-maila guztietan erabili daiteke, hortaz, moldaketak eginez, Haur Hezkuntzako maila guztietan erabiltzeko aukera dago. Honen helburua ikasleek askatasun osoz erabiltzea eta bertatik ikastea da, gozatzen duten bitartean. Aldaketa hau aurrera eramateko antolamendua ezinbestekoa da, irakasleek landu nahi dituzten edukiak, elikagaiak eta prozesu osoa prestatu behar dute umei aurkeztu baino lehen. Modu honetan umeek jarduera ikertzailea garatuko dute, behaketak eginez eta zalantzak planteatuz, adibidez. Gainera, talde-lana sustatzeko ekintza bikaina da, denon artean lana antolatu behar dutelako ekintzak taldekatzen dituzten bitartean. Moldaketa hau oso interesgarria izan daiteke oso baliabide globala delako, bertan irakasgai anitzak lantzeko aukera dago eta gainera ingurunearen alde hezitzen dira ikasleak, errespetuzko jarrerak lantzen dituzten bitartean (Ormazabal eta Oliveri,



1998). Hau horrela, bi patioetan gune naturalekiko duten gabezia indar daiteke ezagutzak barneratzen dituzten bitartean.

Jarraitzeko eta patioaren naturalizazioa animaliekin harremantzeko, eskolan egin ahal diren hegaztientzako askak proposamen paregabea izan daiteke. Hauen helburua hegaztien bizirauteko aukerak handitzea da, neguko hilabeteetan batez ere. Gainontzeko urtaroetan ez da egokia mantentzea; beraz, ekintza hau oso baliagarria izan daiteke urtaroak lantzeko ikasleekin batera. Honen eginkizuna hegaztientzako janaria gordetzea da eta modelo eta tamaia anitzekoak izan daitezke, egileen eskura (Arabako Natur Elkartea, 2018). Gainera, Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxea leku bikaina da horrelako jarduera aurrera eramateko zuhaitz altuak dituelako patio handian eta horrelako jatontziak leku altuetan kokatu behar dira harrapakariak ez heltzeko. Orokorrean bertan janari desberdinak jartzeko aukera dago, adibidez, haziak, fruituak edo giza jatorriko elikagaiak.

Proiektu honen bitartez, umeez mota askotako hegaztiak behatzeko aukera izango dituzte; esate baterako, amilotx urdina, tuntun arrunta, zozo arrunta, etab. Gainera, hegazti desberdinak behatzen dituzten arren, hauen migrazio prozesuak, janari mota, itxura eta abar, behatzeko aukera izango dute; beraz, oso proposamen globala da, patiora natura hurbiltzeko aukera anitzak eskaintzen dituena.

Patioak naturalizatzeko egin ahal diren proposamenekin jarraitzeko, esatea, espazio hauetan zientziarekin harremana duten txokoak integratzea bikaina izan ahal daitekeela. Horretarako, Haur Hezkuntzan interesgarria izan daitekeen ekintza bat aldapak eta bideak eraikitzea izan daiteke, umeei baliabideak eskaintzea hauek eratzeko eta hipotesiak sortuz frogak aurrera eramateko. Bertan, askatasuna eskaini behar zaie, haien autonomia bultzatzen den bitartean talde lana aurrera eramaten dutelako eta elkarrekin lan egitea lortu nahi den beste helburuetako bat delako.

Naturalizazio prozesua aurrera eramateaz gain, moldaketa ugari egin daitezke ezer ez aldatu gabe, soilik baliabide materialak eta fisikoak erabiliz. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea, egingo diren aldaketak, gero mantendu behar direla; beraz, edozein motatako prozesua edo aldaketa egin baino lehen ideia hau argi egon behar da (Pons, 2016).

Aldaketa hau aurrera eramateko, zoruan jolas edo zirkuitu desberdinak margotzea aukera interesgarri bat izan daiteke. Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxearen bi patioak; bai txikia, bai handia, zementuzkoak direlako; hortaz, bertan margotzea oso

erraza izan daiteke. Gainera, modu honetan, momentura arte erabiliera gutxiko bazterrei itxura aldaketa bat egiteaz gain, umeentzako aukerak handitzen dira. Honez gain, umei galdetzea proposamen bikaina da beti, haiek oso ondo dakite zer nahi duten eta zertara aritu nahi diren espazio horietan, modu honetan, ideia interesgarri asko lor daitezke.

Espazio zentralenei erabilera desberdin bat emateko asmoz, kirol-kantxetan aurretik proposatutako ginkanak antolatu daitezke, umeek ikusteko kirolean aritzeaz gain beste hainbat kontu egin daitezkeela zelai hauetan. Horretarako, oso garrantzitsua da antolamendu egoki bat prestatzea eta eskaintzea, umeentzat erakargarria izateko eta egun horretatik aurrera beste ekintza batzuk egiteko espazio zentralenetan, kirolen presentzia mantenduko den arren.

Patioetan ematen diren jarreretan arreta jartzeko eta inklusibitatearen gaiarekin hasteko asmoz, esan beharra dago, gai honen inguruan hainbat aspektu proposatzeko aukera dagoela. Hau horrela eta patioaren irisgarritasuna behatuta, esan beharra dago, eskailerak dauden espazio guztietan ez dagoela arrapala bat ondoan; beraz, patioak eskatzen duen hobekuntza proposamen bat hori izan daiteke. Honekin jarraitzeko, interesgarria izan daiteke baita ere, desgaitasun psikiko zein fisikorik duten ikasleen paperean jartzea, rol jolasak eginez, adibidez. Adin honetan oso garrantzitsua da bullying egoerak ekiditzea; beraz, ezinbestekoa da bere burua defendatzeko zailtasunak dituen ikasle bakoitzaren azalean jartzea.

Adin honetan eman daitezkeen jazarpen motak ugariak izan daitezke; esate baterako, ahozko erasoak, zeharkako erasoak edo eraso fisikoak. Beraz, garrantzitsua da hauetaz ohartzea eta geldiaraztea, ondorioak larriagoak ez izateko. Horretarako asko dira prebentziorako dauden programak, adibidez, KIVa programa. Honek, bi helburu nagusi ditu; alde batetik, jazarpen kasuak murriztea eta bestetik, erasoak prebenitu ikasleen harremana eta errespetua sendotzeko (Ortega eta Rey, 2001).

Umeen arteko harremanetan eta hezkidetzan gehiago sartuz, esatea, errespetua eta jarrera egokiak lantzen diren bitartean autonomia eta materialen zaintza jorratzeko aukera dagoela. Finean, lortu nahi dena da jolasaren bitartez umeen arteko jarrerak indartzea eta hobetzea. Honetarako, jolas berriak eta berritzaileak aurkeztea patio orduetan baliabide aproposa izan daiteke, umeek nobedadeak behar dituztelako. Jolas hauetan, egokia izango litzateke kooperazio, konfidantza, talde lana eta taldekatze ugariak eskatzen dituzten ekintzak aurrera eramatea, adibidez, aurretik aipatutako ginkanak.

Jarduera hauek aurrera eramaterako orduan ezinbestekoa da jakitea zertarako egiten diren, hauen helburuak finkatu behar dira, horietatik abiatzeko eta umeekin lortu nahi diren kontu guztiak jorratzeko. Ezinbestekoa da hauetan umeen motibazioa pizten duen zerbait aurkeztea, bai sari finalen bat, bai gai interesgarri baten inguruan antolatzea.

Modu honetan, ikasleak, osotasunean sartuko dira ekintzan eta haien lankideekin batera irakasleek proposatutako helburuak lortuko dituzte (Fernández eta Malavé, 2009). Ginkanetan parte hartzen duten ume guztiek ezagutzen duten ipuin tradizional baten laguntzaz baliatzea oso aukera baliagarria da, gehienetan bidaltzen dituzten mezuak hezkidetzaren aldekoak direlako, esate baterako, ahate itsuariaren ipuina (Rovira, 2003).

Hobekuntza proposamenei amaiera emateko eta aniztasunak dakarren aberastasuna nabarmentzeko asmoz, esatea, egiten diren aldaketa guztiak umeen beharrak, egoera emozionala, fisikoa, psikikoa eta familiarra kontuan hartuta egin behar direla. Hau horrela, garrantzia handikoa da ume guztien profila oso ondo ezagutzea; hortaz, irakasle eta ikastetxe osoko langileen kooperazioa eta elkarlana ezinbestekoa da.

## BIBLIOGRAFIA

- Altimir, D. (2010). *¿Cómo escuchar a la infancia?* Barcelona: Octaedro.
- Bonal, X. (2014). *Cambiar la escuela: la coeducación en los patios escolares* (13 ed.). Barcelona, España: Bellaterra Universitat.
- Bonnemaison, V., & Trigueros, C. (Enero de 2005). Utilización de los recreos como espacios educativos. *efdeporte* , 1.
- Bueno, V. (1 de Enero de 2019). Marzá quiere convertir los patios escolares en recreos pedagógicos. *Noticias de Alicante* .
- Cabello, M. J. (2011). La importancia de un "rincón de observación y experimentación" o "de los experimentos" en nuestras aulas. *Dialnet* (10), 58-63.
- Cabello, M. J. (2011). La organización del espacio en Educación Infantil: poderoso instrumento docente. *Dialnet* , 196-203.
- Cantó, R. (2005). Comportamiento Motor Espontáneo en el patio del recreo escolar: análisis de las diferencias por género en la ocupación del espacio durante el recreo escolar. *Recyde* , 1, 28-45.
- Carneros, S. *Proyecto de patios*. Red Internacional de Educación.
- Caurcel, M. J. (2010). Contextos de desarrollo y juego en la edad infantil. *Dialnet* , 165-196.
- Conde, O., & Pinzolas, J. (2005). *Los patios de recreo: espacios para la biodiversidad* (Vol. 140). Aula de Innovación educativa.
- De Pablo, P., & Trueba, B. (1994). *Espacios y recursos para tí, para mi, para todos: diseñar ambientes en Educación Infantil*. Barcelona, España: S.A. Escuela Española.

Del rey, R., & Ortega, R. (2001). Programas para la prevención de violencia escolar en España: la respuesta de las comunidades autónomas. *Revista Interuniversitaria de formación del profesorado* (41), 133-141.

Elzo, J. (12 de Diciembre de 2016). La importancia del patio escolar. *El periódico* .

Fernández, M. (24 de mayo de 2014). 150 colegios reorganizarán el patio para evitar que los chicos y el fútbol se adueñan del recreo. *El diario vasco* .

García, E., & Rodríguez, G. (2008). *Metodología de la investigación educativa*.

Ibañez, C. (2016). *El proyecto de Educación Infantil y su práctica en el aula*. Madrid: La Muralla.

Jarrett, O. (Agosto de 2003). *El recreo en la escuela primaria*.

Lafuente, A., & Horrillo, P. (2017). Cómo intervenir un patio escolar.

Laguia, M., & Vidal, C. (2008). *Rincones de actividad en la educación infantil (0 a 6 años)* (Vol. 26). Barcelona, España: GRAO.

Larramendi, I. (4 de Abril de 2016). Eskoletako jolastokiak eta genero-rolak: diseinua eragina genero-nortasunean. (27), págs. 18-21.

Ledesma, C. *Uso y distribución de los espacios escolares*. Valladolid: Escuela universitaria de educación de Palencia.

López, I., & Malavé, P. (2009). *Las gincanas como recurso metodológico en el área de Educación Física* (Vol. 31). Tándem.

Majoral, S. (2005). Educar de 0 a 6 años. *Dialnet* , 94, 30-36.

Marín, M. F. (2010). Algo más que un patio de recreo. *Temas para la educación* , 9, 1-8.

Marín, M. F. (2012). Algo más que un patio de recreo.

Morales, M. (2018). Transformar un patio escolar: 3 ejes para reflexionar. *Plataforma Internacional* .

Navarro, A. (21 de Noviembre de 2017). Beneficios del juego al aire libre. *Eres mamá* .

- Pavía, V. (2005). *Patio escolar: el juego en libertad controlada*. Buenos Aires: Noveduc.
- Pons, C. (2016). Cómo iniciar un proceso de reforma del patio de la escuela. *Tierra en las manos* .
- Pons, C. (2016). ¿Cómo debería ser el patio de la escuela? *Tierra en las manos* .
- Rámirez, W., Vinaccia, S., & Ramón, G. (2004). El impacto de la actividad física y el deporte sobre la salud, la cognición, la socialización y el rendimiento académico.
- Ritscher, P. (2006). *El jardín de los secretos*. Barcelona: Octaedro.
- Schulmaister, C. (10 de julio de 2007). La importancia del recreo .
- Tiching*. (13 de Febrero de 2014). Recuperado el 14 de Abril de 2019, de El blog de Educación y TIC: <http://blog.tiching.com/heike-freire-en-educacion-el-contacto-con-la-naturaleza-es-vital/>
- Tonucci, F. (2014). Para educar a un niño se necesita toda una tribu. La ciudad de los niños y las niñas. *Dialnet* , 267, 44-48.
- Torrallbo, A. (18 de Enero de 2017). Contra el imperio del fútbol: los patios de escuela a revisión. *El diario de la educación* .
- Vázquez, Y. (24 de octubre de 2014). Francesco Tonucci: 20 frases sobre el juego infantil para reflexionar. *Rejuega y disfruta jugando!*
- Villa, B., & Cardo, C. (2005). *Material sensorial (0-3 años)*. Barcelona: GRAO.
- Vives, M., & Galarraga, P. (2015). Eskoletako kanpo espazioak eta hezkidetzak. *M8 monografikoa* , 20.
- Woodhill, B., & Sammuels, C. (2014). Estereotipos de género.

## ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA: Luis Elejalde- Rogelia de Álvaro ikastetxearen patioen argazkiak.

#### 1.1. Patio handiaren argazkiak.



## 1.2. Patio txikiaren argazkiak.





## 2. ERANSKINA: Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro ikastetxeko patioetan egin daitezkeen hobekuntza proposamenen ideiak.

### 2.1. Eskola-baratza



## 2.2. Hegaztientzako askak



### 2.3. Aldapak eta bideak



## 2.4. Patio estaliak



## 2.5. Jolas kooperatiboak



## 2.6. Zoluan margotzeko jolasak





## 2.7. Material desberdinekin egindako txokoak

